

J. M. Satrustegi jaunak, zenbait oharren artean, hartu diren agurren berri ematen du.

Idazkariak goizeko bileraren berri ematen du. Otsaileko eta martxoaren 6ko batzar agiriak onartu dira. Zaldibarko udaletxeko agintariei esker-erak ematea, Bitor Garitaonandiaren omenaldia antolatzeko eman ziguten laguntzagatik; Euskaltzaindiaren legezko nortasunez Zaldibarren Euskaltzainburuak irakurri zuen txostenaren kopiak zabaldu dira; Nafarroako Foru Diputazioari eskerrak ematea Euskaltzaindiaren ordezkaritza jartzeagatik, eta erabagi bezala, ordezkaritzaren buru J. M. Satrustegi jauna izendatu zen, batzordea izendatzea gerorako utziaz; M. Oreja jaunagandik euskal izeneri buruz hartu den oharra irakurri da; orainarte aztertutako aditz sintetikoak aztertu eta onhartu ziren, Mitxelena jaunak egindako oharra kontuan hartuta. Lan honi segida emateko falta diren aditz sintetikoen zerrenda batzordekoen eta euskaltzain osoen artean zabalduko da beren oharra egin ditzaten.

Idazkari-ordeak irakasle titulurako egongo diren etsaminen berri eman du, eta Gasteizen Odon de Apraiz euskaltzain ohorezkoari egingo zaion omenaldiaren berri, zeren omenaldi honetan Euskaltzaindia izango da Arabako Diputazioaren Consejo de Cultura-rekin batean antolatzaile.

Jose Maria Olaizola, Gipuzkoako diputatu eta kultura saileko buru denak hitz egin du, duela denbora guti Madrid-eko Ateneo-an euskarazko hitzaldi batera nola joan zen eta teknika hiztegiari buruzko gaidun hitzaldi hartatik argi ikusten zuela euskara ez dela baserritarrena bakarrik eta gazte kementsurik eta jakitunik badela euskararen indar-berritzea lanetan, eta honek ematen diola euskarari itxaropen berri bat. Hitzok, bere aita eta gure laguntzaile zen Jose Olaizolaren olerki bat irakurritz bukatu ditu.

Amaitzeko, Xabier Diharce "Iratzeder" jaun euskaltzaina eta Belokeko Abatak mugazandiko euskaldunen agurrezko hitzak eskaini dizkigu, eta J. M. Satrustegi eta L. Villasante jaunek Donostia eta Liolako Herri Irratikoei eta "24 orduak euskaraz" antolatzen lagundu duten guzietan eskerrak emanez bukatzen dute.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - IV - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko apirilaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. Intxausti, E. Knörr, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dala.

Arrue, Davant, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko batzar agiria onartu da.

Euskaltzainburuak, Louis Dassance euskaltzain jaunaren hil berria eman du eta mugazandiko euskaltzainen esku uzten du haren bizitza eta lanen xehetasunak ematea. J. Haritschelhar jaunak P. Lafitte jaunak hon-taz idatzi duen txostena irakurtzen du, joan zaigun euskaltzainkidearen gizontasuna, dohainak eta euskaltzaletasun kartsua, baita ere euskaraz eginak zituen lanik berezienen berri emanez.

Euskaltzainburuak arautegiaren 33 eta 34. artikulua agintzen dutenaren arabera, aulki baten hutsunea agertzen du, eta hau betetzeko izkribuzko proposamenak egitearen deia agerraraziz. Beraz, proposamenduak bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira, datorren maiatzekoan eta ekai-nekoan.

J. M. Satrustegi jaunari, joan beharra agertu duenez, bere txostena lehen partean irakurtzeko eskubidea ematen zaio, har-emanak gerorako utziaz.

a) EUSKAL IZENDEGIA GAURKOTZEAZ

Satrustegi jaunak pertsona izenen lege berritzearen asmoak agertzen ditu, eta ondorean euskal izendegi berritzera erabili dituen aburuak azalduaz. Bere asmook ongi ikusiak izan dira eta bide beretik jarraitzea eskatzen zaio. Berak, bere aldetik, lehengoaren gehigarritz zerbait eskaini dezatekenei laguntza eskarizko deia egiten die. Oraingo berri hau ere Banco de Vasconiak argitaratzea onartu da.

b) HAR-EMANAK

Lankide Aurrezkiak 1.000.000,— pezeta ematen dizkigu urteko sari-tzak, eta gure eskerrik beroenak agertzea erabakitzen da.

Lau Diputazioei eskerrak ematea, irratiz 24 orduak euskaraz izan zirenean eman ziguten laguntzegtatik.

Durangoko udaletzeko eta "Instituto de Estudios Riojanos" delakoaren gutuna gure nortasun lortzeagtatik zorionak emanez.

Aurten ere, Andima Ibiñagabeitia sariaren antolaketa gure esku uzten da eta deiak egitea erabakitzen da.

Maiatzaren 23an Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzak Liolan antolatzen duen lehiaketarako sei Euskaltzaindiko mahaibururako eskatzen digute. Honako hauek izendatzen dira: J. M. Aranalde, J. A. Retolaza, J. M. Iriondo, J. A. Letamendia, J. Goikoetxea-Maiza, eta M. Atxaga jaunak.

Gerediaga elkarteak Urkiolan antolatzen duen lehiaketarako, beste honako hauek izendatzen dira: E. Knörr, N. Alzola, X. Mendiguren jaunak.

HARTU DIREN LIBURUAK

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-batzak eman dituen E.G.B.-ko eskola liburuak: *Matematika* 2, 3, 4 eta 5.mailakoak; *Saioka*, proiektuak eta

gaiak-2, osagarriak eta ariketak-2, proiektuak eta gaiak-3 (ikasturtearen lehen erdia), osagarriak eta ariketak-3 (ikasturtearen lehen erdia), osagarriak eta ariketak-3; *Gida liburua* 4 eta 5; *Esporientzi arloa* (II. Natur Zientziak), lanerako fitxak-4; *Euskara* - 6; *Irakur* 2, 3 eta 4; *Asto baten maluza* (ipuiak); "*Beleko*" eta *biak* (ipuia); *Kristau ikasbidea* 3, 4 eta 5. mailak; *Kristau ikasbidea*-1 eta 2 (lanerako ikasleen orriak; liburu bakoitzetik bosna ale ematen dizkigute, Euskaltzaindiak bere orraztapena eman dezaien, hiztegia taxutu, idazkerako akatsak zuzendu eta abar. Beste liburuen artean aipagarri da Florentino Castaños Garai irakasleak egin-dako bere doktor lana "La formación del plural en la lengua vasca".

d) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzain osoak eta EUSKERA aldizkariaren zuzendaritzakoak bil-du dira, EUSKERA XX (1975) inprimategiak laster argitaratzeko zorian dago. Lan batzuen zai egotetik izan du argitaratzearen atzerapena, eta hemendik aurrera, jarritako eperako hartzen ez den lana urrengo urtera-ko uztea erabaki da.

"Euskaltzaindiaren liburu saila" sortzea erabaki da, zenbait argital-pen berezirentzat. Honako sail honetan sartuko da *Euskararen liburu zuria*; Siadeco-ren laguntzaz eta Lankide Aurrezkiaren diru laguntzaz osatu beharrezko lanaren lehen parte da.

EUSKERA XXI (1976) osatzeko lan hauek hautatzen dira: Euskaltzaindiaren nortasuna onartzen den Real Decreto delakoa (Boletín Oficial del Estado, número 73, 25 marzo 1976); E. Larre jaunaren sarrera hitzaldia eta J. Haritschelhar jaunaren erantzuna; A. Tovar jaunaren "Las vocales en la lengua vasca"; Larresororen (L'emploi de L'indefini en souletin"); eta behar bada besteren bat gai nagusien arteko; Batzar txostenak gai laburren arteko; Euskaltzaindiaren agiriak; eta Berriak; Hartu diren liburuak eta euskaltzainen helbideak.

Horrez gainera, Elhuyar taldekoen hiztegi teknikoa, M. Zalbide jaunak aurkeztua eta etxegintzako hiztegia, J. M. Zumalabe jaunak gertatua, argitaratzeko bideak egin.

e) AZENTO DIAKRITIKOA EIBARKO EUSKARAN

Imanol Laspiur jaunaren txostena, Eibarren erabiltzen den azentu diakritikoaz. Sarrera gisa, lan honen bilketara zerk eramán zuen eta erabili duen metodoa agertzen ditu, eta ondorean, hitzez hitz, Eibarren nola bereizten diren zenbait plural eta singular azentuz baliaturik, eta letra berdinez idazten diren hitzak elkarregandik azentuz nola bereizten diren; azkenez, baita ere denboren bereizketarako azentua nola erabiltzen den, lehena, oraina edo geroa adiarazteko.

Elkarrizketa jakingarri bat ireki da Laspiur jaunaren adierazpenen ondotik, Bizkaiko zenbait partetan eta baita Zuberoan ere, azentu diakritikoaz antzera jokatzeko delá agertuaz, baina Eibarkoá agiri bereiztat jo da.

f) ASKO ETORRI DIRA ALA ASKO ETORRI DA?

Anbrozio Zatarain jaunaren txostena, Larresorok duela sei urte *Sustrai bila* liburuan eman zituen iritzien azterketaz "asko etorri dira" eta "asko etorri da" esaldiak aztertzen dituena, zenbait exenplu eta adibide agertuaz.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - V - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte, J. M. Satrustegi, euskaltzain jaunak; M. Atxaga, I. Berriatua, J. Garmendia Larrañaga, J. Intxausti, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. A. Retolaza, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearereta laguntzaile jaunak J. San Martín idazkari dela.

Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK

Madrid-etik Revista de la Universidad Complutense delakoak bere 92. zenbakia igortzen digu "La poesía actual" (I) izenekoa, eta urrengo zenbakirako euskal eleberrieri buruzko lan bat eskatzen digute eta datorren urtearen lehen parterako antzerkiari buruzkoa. Lan hontaz nor arduratuko den ezta erabagi.

Idazkari ordezekoak Instituto de Ciencias de la Educación delakoari buruzko berriak eman ditu. Bilinguismo eta Bikulturalismoz Tarragonan egingo dituzten bileretara X. Mendiguren joango da gure izenean eta hurrengo batzarrean emango digu berak beren albisteak.

Jakin argitaldariaren eskaria, Axularren *Gero*-ren argitalpen berria, itzulpenez eta oharrez eginen dutena, inprimategira sartua dutela eta Euskaltzaindiaren babespena eskatuaz. Onartua izan da.

Gasteizko udaletxeak, urteko laguntzaz, Euskaltzaindiari 200.000,- pezeta ematea erabaki du. Gure eskerrak agertzea erabaki da.

Gipuzkoako Amnistiaren Elkarteak erregeri egiten dion eskariaren berri ematen digu, era berean Euskaltzaindiak ere amnistia eskaria egin dezan. Gai hau ezta Euskaltzaindiaren helburuetakoa baina zenbait iritzi jaso ondorean euskaltzain oso guztiei galdezka idaztea erabaki da.

Liburuzainak D. Peillen, X. Gereño, J. A. Arana Martija, C. Uriarte, Lauroko ikastolak eta Banco de Bilbaok emandako liburu eta aldizkarien berri eman du.